AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3830

AGINDUA, 2014ko abuztuaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako praktiketako funtzionario izendatzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak 2014/2015 ikasturterako praktiketako funtzionario izendatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko erabaki judizialak betez.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Praktiketako funtzionarioak izendatzea.

1.1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren (2010-01-11ko EHAA) bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaia Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. Gutxienez ikasturte batean zehar karrerako irakasle funtzionario gisa zerbitzuak eman dituenez, praktika-aldiaren ebaluazioaz salbuetsita dago. I. eranskinean zerrendatzen da.

1.2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren (2011-01-10eko EHAA) bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaia Maisu-maistren Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. II. eranskinean zerrendatzen da.

1.3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren (2012-02-15eko EHAA) bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. III. eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Praktiketako funtzionario gisa izendatzeak 2014ko irailaren 1az geroztik eragiten ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak. Nolanahi ere, praktika-aldia burutzeko, esleitutako lanpostuaren jabe izan beharko dira.

Beren lanpostuan hasten ez diren hautagaiek karrerako funtzionario gisa izendatzeko dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Hirugarrena.– Agindu hau betez egindako izendapenak, hautatuak izan diren hautaketa-prozeduraren deialdiak ezarritako parte hartzeko eskakizun orokorrak eta bereziak betetzearen mende egongo dira.

Praktiketako funtzionario gisa izendatzeko aukeratutako hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa berrikusi ondoren, hala badagokio Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu osagarri bat argitaratuko da. Agindu horretan, aipatutako hautaketa-prozedura horren deialdian eskatutako baldintzak egiaztatu ez dituzten pertsonak izendapenetik baztertu egingo dira.

Laugarrena.– Agindu honen bidez izendatutako funtzionarioen erregimena praktiketako funtzionarioentzat indarrean den legeriak ezarritakoa izango da.

Bosgarrena.– Baimena ematen zaio Langileak Kudeatzeko zuzendariari, agindu hau betearazteko beharrezkoak diren jarraibideak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abuztuaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Sistema elektroteknikoak eta automatikoak
Txanda: Librea

30613330P	García Sánchez, Carlos	2010026910

II. ERANSKINA

Kidegoa: Maisu-maistrak
Espezialitatea: Pedagogia Terapeutikoa
Txanda: Librea

78910921Z	Miguel Casanovas, María Carmen	2011038110

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Biologia eta Geologia
Txanda: Librea

30633820M	Atxikallende Arriaga, Amaia	2012019710
15956046A	Gómez Zapiain, Karmele	2012023310
22718714G	González Gallo, Mª. Teresa	2012023210
11931520V	Soriano Ruiz, José Antonio	2012023710

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Euskara eta Literatura
Txanda: Librea

15990005Z	Bengoetxea Izeta, Mª. Concepción	2012019010
30621156Z	Gangoiti Uriarte, Pilar	2012017210

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Ostalaritza eta Turismoa
Txanda: Librea

72457774T	Arrospide Baena, Ruben	2012031710

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2014ko irailaren 11, osteguna
172. zk.